

Komisioen tarifak, baldintzak eta bezeroei jasanaraz daitezkeen gastuak

2020.01.02etik indarrean

06. EPIGRAFEA ORDAINKETA ZERBITZUAK: TRANSFERENTZIAK ETA ORDAINTEKO BESTE AGINDU BATZUK (EEE)*. NOMINA ORDAINKETA *APLIKAZIO EREMUA:

Epigrafe honetako tarifak eurotan egindako transferentzia nazional guztiei eta 2009ko irailaren 16ko EE 924/2009 Erregelamenduak eta 2012ko martxoaren 14ko EB 260/2012 Erregelamenduak araututako gainerako transferentziei aplikatuko zaizkie, hau da, Europar Batasuneko estatu kideen (gehi Liechtestein, Norvegia eta Islandia) konturako transferentziei, eurotan, Suediako koroetan edo Errumaniako Leu (ron) komisio partekatuekin egindakoei (SHA).

Ondorengo tauletan agertzen diren tarifak pertsona fisikoak diren bezeroei aplikatzen zaizkie

Igorritako transferentziak	KOMISIOA ERAGIKETA BAKOITZEKO	
	%	Gutxienekoa
Agindu indibiduala bulegoan eta BBVA Linean	0,40	6,00 €
Agindu automatikoa (ikus 7. oharra) edo fitxategian	0,25	1,75 €
Berehalako agindua bbva.es webgunean eta BBVA app-ean	---	1,25 €
Berehalako transferentzia bulegoan	0,50	8 €
Balio-agindua egun berean	0,50	10 €
Igorritako premiazko transferentziak Target-2 Espainiako Bankua edo beste Premiazko Ordainketa Sistema bat (ikus 5. oharra)	0,50	15,00 €
Jasotako transferentziak	0,00	0,00 €

* Transferentzia agindu guztiak ezingo dira izapidetu euskarri magnetikoan.

Ondorengo tauletan agertzen diren tarifak pertsona juridikoak diren bezeroei aplikatzen zaizkie

Igorritako Transferentziak	Komisioa eragiketa bakoitzeko	
	%	Gutxienekoa
Agindu indibiduala bulegoan	0,40	6,00 €
Agindu automatikoa edo fitxategian	0,25	1,75 €
Berehalako agindua BBVA Net Cash-en	0,50	6 €
Balio-agindua egun berean	0,50	10 €
Igorritako premiazko transferentziak Target-2 Espainiako Bankua edo beste Premiazko Ordainketa Sistema bat (ikus 5. oharra)	0,50	15 €
Jasotako transferentziak	0,00	0,00 €

* Transferentzia agindu guztiak ezingo dira izapidetu euskarri magnetikoan.

Pertsona fisikoei eta juridikoei aplikagarriak zaizkien transferentzietarako kontzeptu osagarriak

Kontzeptua	%	Gutxienez eta gehienez edo finkoa eurotan
Datu nahikorik gabe edo datu okerrekin jaulkitako eta jasotako transferentziak komisio gehigarri bat izango dute igortzailearentzat eta jasotzailearentzat (ikus 1. oharra)	--	15,00 €
Eskudirua entregatu edo jasotzeagatik: Agindu-igorlearentzat agindua esku-dirua entregatzearen truke egiten denean, ez kontuan kargatutako; onuradunarentzat, berriz, agindua esku-dirutan egiten denean eta ez kontuan ordainduta.	1,00	3 € gutxienez 15 € gehienez
Jarraibide bereziak betetzeagatik, ordaintzaileak agintzen duenean onuradurari abisu, kontaktu edo jakinarazpen bereziak egitea, eragiketaren tratamendu automatikoa eragotziko dutena (Ikus 8. oharra).	--	15,00 €
Agindu-emailearen kontura transferentziak baliogabetu, itzuli edo aldatzeagatik. (ikus 9. oharra)	--	20,00 €
Internet bidez egindako transferentzietan, agindu-emaileak onuradunari SMS mezu bidez jakinaraztea eskatzen dionean, komisio gehigarri bat kobratuko da mezu bakoitzeko	--	0,15 €, mezu bakoitzeko
Transferentzia anitzetan ordainagiri unitarioa emateagatik, likidazioaren laburpen-orriaz gain, agindu-emaileak hala eskatuta.	--	0,30 €, frogagiri bakoitzeko
Eragiketako jasoko dira, igorpeneko (faxes, swift-a, EBA) gastu guztien kontzeptupean.	--	10 euro
Eskaera bakoitzeko, eta aginduaren betearazpena euskarritzeko jatorriko erakundeak bidalitako mezuaren (swift) jaulkipen gastuen eta kopia bidaltzearen kontzeptupean.	--	3 euro
SEPA formatura bihurtzeagatik, komisio gehigarri bat kobratuko da.	0,10	1,45 €, gutxienez

- 1. OHARRA** Entitateak transferentzia/nomina ordainketa onartzeko eta igortzeko, bezeroak informazio hau eskaini behar du:
- Agindu-emailearen IBAN, leihatilan eskudirutan entregatzearen aurka egindako aginduetan izan ezik. Agindu-emailearen izena edo sozietate izena eta helbidea osoa, eta IFZ, hala badagokio.
 - Onuradunaren izena edo sozietate-izena.
 - Onuradunaren Banku Kontuaren Nazioarteko Kode (IBAN) osoa eta baliozkoa. Transferentziaren zenbatekoa eta moneta.
- 2. OHARRA** Kobratutako merkataritza efektuak, kanbio eta txekearen legeko 6. artikulua babesean igorpen-hartzailearen kargura interesak sortzen dituztenean, 01. Epigraferen 6. oharrean azaltzen den moduan, entitate hartzaileari abonatzen zaizkion interes horiek transferentziatzat hartuko da, eta beraz, kontzeptu horrengatik komisioak kobratzeari lotuta egongo da.
- 3. OHARRA** Euskarri magnetikoari dagozkion tarifa murriztuak aplikatzeko, euskarri magnetiko bakoitzeko jasotako eragiketa-kopurua 200ekoa izango da, gutxienez, Espainiako Banku Elkartearen zehaztapenei jarraituz.
- 4. OHARRA** Agindu-emaileak euskarri magnetikoan ematen dituen agindu masiboak, hau da, 200 eragiketa edo gehiago dituztenak, Bankuaren eskuetan egongo beharko dira, modalitatearen arabera adostutako tratamendurako era eta tokian, gutxienez agindu-data baino bost lanegun lehenago, zeina bat etorriko da "ordainketa-datarekin". Aurkezpena paper bidez egiten bada, zortzi egun lehenago jakinaraziko da.
- Bezeroak emandako agindua ez badator bat sinadurarekin edo ez badago saldo nahikorik zordunketako kontuan, "agindu-datatzat" hartuko da falta den betekizuna bete ondoren egikaritu daitekeen data.
- 5. OHARRA** Bezeroaren jarraibideei jarraituz egunean bertan egikaritzen direnak, onuradunaren erakundearen kontuan ere egun berean egiaztatzeko. Tratamendu automatizatua baimendu behar dute; beraz, zordunketa eta kreditu kontuak teknikoki zuzenak eta baliozkoak diren IBAN kodearekin egongo dira identifikatuta.
- 6. OHARRA** Posta gastu kontzeptupean jasoko dira bidalketa bakoitzean sortutako frankeoarenak, Komisioen, baldintzen eta bezeroei jasanaraz daitezkeen gastuen tarifei buruzko 00. Epigrafean adierazi bezala.
- 7. OHARRA** Transferentzia automatikoak izango dira bezeroak sukurtsaleko langile baten beharrik gabe egiten direnak. Transferentzia guztiak ezin dira jaulki automatikoki.
- 8. OHARRA** Ezin da tratamendu automatikoa burutu kreditu kontua teknikoki okerra denean edo konturik ez denean.
- 9. OHARRA** Hartzailearen edo agindu-emailearen ordainketa-zerbitzuen hornitzaileak komisioren edo gasturen bat jasanarazten badu aginduko datuak baliogabetu, aldatu, itzuli edo zabaltzeagatik, kostu horiek agindu-emaileari edo hartzaileari jasanaraziko zaizkio, aplikatuko duenaren arabera.
- 10. OHARRA** Komisioak edota gastuak ez dira aplikatuko Epigrafe honetan jasotako pertsona juridikoen eta pertsona fisikoen eragiketa guztiei (aginduak, transferentziak, txekeak jaulkitzea, etab.), baldin eta pertsona juridikoek Bankuarekin adosten badute urriaren 28ko EHA/2899/2011 Agindua ez aplikatzea, beren lanbide- edo enpresa-jardueraren esparruan jarduteagatik komisio eta gastu batzuk itundu badira, eta komisio eta gastu horiek eragiketen zenbatekoaren, horien kopuru jakin bat burutzearen, epe jakin baten barruan burutzearen eta abarren arabera finkatzen badira, betiere itun horiek indarrean diren bitartean.

Nominen ordainketa.

NOMINEN ORDAINKETA AGINDUAK (Enpresa agindu-emailea)	KOMISIOA ERAGIKETA BAKOITZEKO			
	AGINDUA FITXATEGIAN		BANAKAKO AGINDUA	
	%	MINIMOA	%	MINIMOA
		Euroak		Euroak
Kontuko ohiko abonua	0,40	0,30	0,50	0,60
Egun bereko abonua	0,45	0,35	0,60	0,70

NOMINEN ESKU-DIRUZKO ORDAINKETA* (Enpresa agindu-emailea)	ORDAINKETA BAKOITZEKO KOMISIOA	
	%	MINIMOA
		Euroak
Bankuaren beraren leihatiletan, enpresa agindu-emaileak eskaintako zerrenden bitartez.	1,00	0,90
Enpresaren lokaletan	2,00	1,20

* Zerbitzu hau Espainian bakarrik eskaintzen da

Kontuan abonatzen diren nominen ordainketetan, Bankuak ez dio onuradunari ordainketaren jakinarazpenik bidaliko, hori berariaz eta aurrez jakinarazita egongo baita nominaren likidazio banakako orrian.

Igorleak edota onuradunak eskatzen badu Bankuak abisua ematea kontuan abonua egin denean, gainera 0,30 euro kobratuko dira abisuko eta kontuko abonua bakoitzagatik sortzen diren posta-gastuak jasalaraziko dira.

Bankuek ez dute tratatuko edo maneiatuko enpresek nominagatik abonatutako zenbatekoen frogagiri izango den inolako barne-agiririk.

Enpresaren lokaletan ordaindutako nominetan, horren kontura izango dira funtsak aldatzeagatik eta segurtasun neurriengatik sortutako gastuak, bestelakorik hitzarturik ez bada.

Bezeroak emandako agindua ez badator bat sinadurarekin edo ez badago saldo nahikorik zordunketako kontuan, "agindu-datatzat" hartuko da falta den betekizuna bete ondoren egikaritu daitekeen data.

Nomina ordaintzerakoan sor daitezkeen atzerapenak ekiditeko, enpresa agindu-emaileak baldintza hauek bete behar ditu:

- Bere kontuetan nahiko funts izan behar du.
- Agindua ordainketa-data baino aurretik eman behar da, egun hauek lehenagotik:
 - . Fitxategiak 5 lanegun.
 - . Banakakoak 8 lanegun.

Nomina-txekea egitea (ikus 15. oharra).